

nazio arazoak / gutxiengoak

Jugoslavia

Eslovenia «independientea» da gaurtik

«Jugoslavian garapenerako trabak ditugu», esan du Milan Kucan lehendakariak

Esloveniak atzo aldarrikatu zuen independentzia gaur proklamatu dute ofizialki, eta gaur bertan egingo da publiko errepublikako bandera berria. Banderaz gain, ez du independentziak berriztapen handirik ekarriko: pasaporte eta diru jugoslaviarra egongo da indarrean oraindik. Eta atzerriko inork ere ez du onartuko aldarrikapena.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Hizkuntz ñabarduraz ornitu du independentzia Esloveniako lehendakariak, Milan Kucan-ek. Ez da 'banaketa', 'bereizketa' baizik. Hau da, Esloveniako agintariek ez dute esaten Jugoslavia uzten dutenik, baizik eta oraingo federakunde «baliogabea» ez dutela onartzen jadanik. Ikuspuntu horretatik, «independentzia» Jugoslavia era berri batean antolatzeak aurrepausua bezala esplikatu dezake esloveniarrek, estatu subiranoen Konfederakunde berri bat sortzea proposatzen ari bait dira aspalditik.

Nazioarteko komunitateak ez du onartuko independentzia aldarrikapena, Estatu Batuek eta Europar Elkartek aste honetan bertan zehaztu dutenez. Oztupo diplomatiko latz horren aurrean, zuhurki mintzatu zen atzo Kucan lehendakaria. «Eslovenia formalki eta lege aldetik independentzia izango da, baina Helsinkiko printzipioei errespetoz eta arazoak ebitatzeko, gainerako funtzioetaz pixkanaka jabetuko gara», adierazi zuen Kucanek.

URTEBETEKO PROZESU AZKARRA

Esloveniak iazko apirilean burututako hauteskundeetan eman zuen independentziarantz



Milan Kucan.

AP

■ **Jatorrizko biztanleak**, esloveniarrek nagusi dira beren errepublikan (% 90), Jugoslaviako beste errepubliketan ez bezala.

■ **Kroaziar eta serbiarrak** 55.000 (biztanlegoaren % 2,9) eta 42.000 dira (% 2,2). Langile etorkinak dira gehienak.

■ **Italier eta hungariarrak** gutxiago dira, baina ez dira etorkinak, Istria eta Mures eskualdeetan bizi bait dira komunitate hauek aintzinatik. Institutzioetan bere ordezkartza dute eta hizkuntz eskubideak onartuta daude, komunikabide publiko eta guzti. Italiarrak 2.187 dira eta hungariarrak 9.496.

lehen urratsa. Sozialdemokrata bat (Kucan, komunista ohia) hautatu zuten lehendakari, eta Gobernuan zentroeskuineko koalizio bat kokatu zen, DEMOS taldea. Alderdi guztiak dira, dena dela, independentistak.

Kucanek zentroarekin lotura



I. MARTIARENA

✓ Jugoslavia krisi politiko, ekonomiko eta etnikoan murgiltzen ari dela ikusita, Esloveniak beste errepublikekin loturak apurtu nahi izan ditu.

ekonomiko eta politikoak hautsi izan ditu pixkanaka. Jugoslavia krisi politiko, ekonomiko eta etniko batean murgiltzen ari zela ikusita, Esloveniak beste errepublikekin loturak apurtu nahi izan ditu. «Independentzia ezinbestekoa da Esloveniarentzat, Jugoslavia barnean garapenerako trabak bait ditugu. Konboiaren teoria da: bagoi azkarrenak, Esloveniak, geldoenari itxoin behar dio», esplikatu zuen atzo grafikoki Milan Kucanek.

Joan den abenduan, independen-

tziaren gainera erreferenduma egin zuten, juxtu gaur dela sei hilabete, eta % 88ak baietz esan zion subiranotasunari. Sei hileko epea ireki zuen orduan Gobernuak, independentziarako azpiegitura legal guztia eraikitze, eta gaur beteko denez epea, aldarrikapena egingo dute. Hala ere, azpiegitura prest dagoenik zalan-tzazkoa da. Eta esloveniar asko independentziaren beldur ere bada: inkesten arabera, % 44ak bakarrik onetsi du erabakia han azkar gauzatzeko.

Esloveniak independentzia ekonomikorik ez du lortuko Jugoslaviatik bereiztuz

K.ALDABE / DONOSTIA

Jugoslavia krisi batetik bestera doan bitartean, Eslovenia errepublikak bere independentzia aldarrikapena egin du. Pixkanaka pixkanaka, esloveniarrek, Jugoslaviatik bereizitakoan behar izango duten independentzia ekonomikoa eta politikoa lortzeko oinarriak eraiki dituztela esan dute.

Eloveniak egun, Jugoslaviako federazioko datu ekonomiko onenak ditu, bere independentzia lortzeko onuragarriak direnak. Errepublikak esloveniarrek Federazioko lurraldearen % 7,9 betetzen du. Biztanlegoa bi milioi ingurukoa da, Jugos-

lavia osoko % 8,5. Hala ere, Jugoslaviako barne produktu gordinaren % 18,9 produzitzen du eta langabezia tasa % 6,6 du, Jugoslavia osoan berri % 15 da langabezia tasa.

Gainera, Errepublikak honek esportazio gehiago egiten du inportazioak baino. 1989an 3,4 bilioi dolarreko balioko esportazioak egin zituen eta 3,2 bilioi gastatu zituen inportazioetan.

Baina denak ez dira datu onuragarriak. Industria mailan, Jugoslavia osoan bezala, krisi gogorra ari da jasaten. Esloveniako industri faktorien % 30k dirua galduko du aurten. Bereizketarekin, bizitza maila ere jaitsiko da. Dusan Sesok-ek, Eslove-

niako Finantza ministroak adierazi zuen, bereizitakoan bizitza maila % 20tik % 30era bitartean jaitsiko dela.

Horrez gain, Esloveniak independentzia lortu ondoren, Federazioaren menpe egongo da, bere esportazioen erdia Jugoslaviako beste errepubliketara doalako. Europako Elkartek ere Esloveniako esportazio eta inportazioetan pisu handia du, eta EEEK errepublika independentzetat ez duela onartuko adierazi zuenez, merkaturak istearekin mehatxatu diezaioke Esloveniari. Eslovenia bereiztuak ezingo du moneta propioa edukitu, nazioarteko dibisarik ez duelako, orainarte jasotako dibisak Federazioak bildu bait ditu.

■ **Lur aberatsa.** Jugoslaviako lurraldearen % 7,9 izanik, eta biztanlegoaren % 8,5a, Esloveniak Barne Produktu Gordiniaren % 18,9 sortzen du, Esportazioen % 25,5 eta inportazioen % 21,7a esloveniarrek dira.

■ **Jende «aberatsa».** Bizimodu maila garaia dute esloveniarrek, gainerako jugoslaviarrek gonbaratuz. Soldata ertaina 100 bada, Eslovenian 150. Langabezia % 6,6koa da; Jugoslavia osoan, % 15koa.

■ **Finantzak.** Esloveniak 7.700 milioi dolarreko aurrekotua du gaur egun, baina 2.000 milioi finantza federaletarako dira.

■ **Italian** gutxiengo esloveniar garantzitsua dago. Trieste (eslovenieraz Trst) hiriaren inguruan bizi dira 100.000 esloveniar. Faszismoaren garaia oso marginatuta egon ziren, baina gaur Friuli eskualdeko bi probintziatan behintzat hizkuntz eskubideak onartuta dituzte.

■ **Austriako** 30.000 inguru esloveniarrek egoera kaskarragoan daude, nahiz eta bertan jaio zen ertaroan lehen estatu independente esloveniarra. Klagenfurt (Celovec eslovenieraz) ondoan dago Esloveniako independentziaren sinbolo historikoa, 'Samo printzearen harria'.

Esloveniera, euskara baino «bost urte gazteagoa»

K.A. / DONOSTIA

Euskarak eta eslovenierak zerbaitetan antzekotasunik izatekotan, bere lehen liburuen argitarapenak ia batera eman zirela da. Horrez gain, bi hizkuntzetan liburuak idatzi zituztenek beste parekotasun bat daukate: apaizak ziren egileak. Eslovenieraz idatziriko lehen liburua 1550 urtean argitaratu zen, Primoz Trubar apaiz protestanteak 'Testamendu Berriaren' itzulpena egin zuenean. Euskaraz argitaratutako lehenengo liburua Bernart Etxepareren 'Linguae Vasconum Primitiae' izan zen, Trubarren 'Testamentu Berria' baino bost urte lehenago. Joannes Leizarraga apaiz protestanteak idatzi zuen lehen euskarazko Biblia 1551n.

Esloveniarren lehenengo arbasoak VI. mende amaieran aurkitu behar ditugu. Hauen aurretik, egun Eslovenia den lurraldean, Langobardoak Ilirioak eta Zeltak egon ziren.

Esloveniak 623 urtean lortu zuen lehenengo aldiz independentzia Samo printzearen eskutik, eta Austriako hegoaldeko Adriatik itsasoraino zabaltzen zen. Karintiako prinzipatua ehun urtetan zehar zabaltu zen lur gehiago eskuratuz.

Esloveniak VIII. mendean galdu zuen bere independentzia bavariarrak sartu eta frankoen menpe jarri zutenean. Ondoren hasburgotarren menpe erori zen lurralde hau. XVIII. amaieran eta XIX. hasieran Napoleonek eskuratu zuen gaur egungo Eslovenia, eta ondoren berriro ere Austriak. Epe hauetan esloveniera bultzatu zuten eskoletako irakas-kuntzan, hortik datorkio hizkuntza honi bere nagusitasuna lurralde esloveniarrean.

I. Mundu Gerra ostetik piztu zen nazionalismo esloveniarra, austro-hungariar inperioaren diktadurak lurraldeari Eslovenia izena kendu zionetik. II. Mundu Gerra ostean berreskuratu zuten izen hori, atzorte beste sei errepublikekin batera Jugoslavia osatu zenean.